

EUSKADI ENERGIA



2014

---

**Energia datuak** *Datos energéticos*



Egilea: Azterlanak eta Planifikazioa Atala  
Argitaratzailea: Energiaren Euskal Erakundea  
Lege gordailua: BI-3038-2010  
Copyright© 2015 Energiaren Euskal Erakundea  
Bilbo 2015  
2015ko abenduan eguneratua

*Autor: Área de Estudios y Planificación  
Editor: Ente Vasco de la Energía  
Depósito Legal: BI-3038-2010  
Copyright© 2015 Ente Vasco de la Energía  
Bilbao 2015  
Actualizado en diciembre de 2015*

04122015v3

*Aurkezpena / Presentación 2*

*Euskal Autonomia Erkidegoa / Comunidad autónoma del País Vasco 2*

*Lurraldeak / Territorios 2*

*Energiak / Energías 2*

*Sektoreak / Sectores 2*

*Energia-faktura / Factura energética 2*

*Europar Batasuna / Unión europea 2*

*2014ko Euskadiko energia balantzea 2*

*Balance energético de Euskadi 2014 2*

*1. eranskina: Informazio iturriak / Anexo 1: Fuentes de información 2*

*2. eranskina: Taulak / Anexo 2: Tablas 2*

*3. eranskina: Konbertsio faktoreak eta unitateak 2*

*Anexo 3: Factores de conversión y unidades 2*

*4. eranskina: Definizioak 2*

*Anexo 4: Definiciones 2*

Irakurle agurgarria, ongi etorri gure EUSKADI ENERGIA argitalpenaren 2014ko ediziora:

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE)** Eusko Jaurlaritzaren energia agentzia da eta haren zeregina da Euskadiko energia estrategiak proposatzea, garapenean parte hartzea eta horietan ezarritako helburuak betetzen laguntzea. Zeregin hori aurrera eramateko, EEEK hainbat azterlan egiten ditu, Euskadiko energia egitura zehaztasunez ezagutzeko.

**EUSKADI ENERGIA 2014** izeneko argitalpen hau 1979. urteaz geroztik argitaratzen den EUSKADI ENERGIA bildumakoa da eta bertan, 2014. urteari dagozkion EAEko energia datuak daude. Txostenaren oinarritzko informazioa zenbait bidetatik eskuratu da: alde batetik, energia banatzaile, ekoizle, eraldatzaile eta kontsumitzaile handienengandik; eta bestetik, **EEEk** berak egindako azterketetatik. Txostenean azaltzen den Euskal Autonomia Erkidegoko energia-balantzea Europar Batasuneko Estadistika Bulegoak, **EUROSTATek**, erabiltzen duen metodologiaren arabera egin dugu.

*Estimado lector, bienvenido a la edición 2014 de nuestra publicación EUSKADI ENERGIA:*

*El ENTE VASCO DE LA ENERGIA (EVE) es la agencia energética del Gobierno Vasco, cuya misión es proponer las Estrategias Energéticas de Euskadi, participar en su desarrollo y contribuir a la consecución de los objetivos definidos en las mismas. En el desarrollo de esta misión, el EVE realiza estudios con el objetivo de disponer de una visión detallada de la estructura energética vasca.*

*El presente documento, **EUSKADI ENERGIA 2014**, corresponde a la serie que sobre esta materia se viene editando desde el año 1979, e incluye los datos energéticos del País Vasco actualizados al año 2014. La información base del informe se ha obtenido de diferentes distribuidores energéticos, productores, transformadores de energía y grandes consumidores, así como de los análisis realizados por el propio EVE. El balance energético del País Vasco que se presenta está elaborado de acuerdo con la metodología desarrollada por la Oficina de Estadística de las Comunidades Europeas **EUROSTAT**.*

Pilar Urruticoechea Uriarte  
Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia  
*Directora General del Ente Vasco de la Energía*

2014. urtean energia kontsumoak aurreko urtean izandako joera berari eutsi dio, behera eginez. Hala, industrian %1,3 egin zuen behera, zerbitzuarenean %2,5, etxebizitza sektorean %5,6 eta lehen sektorean %11,1. Berririo gora egin zuen arlo bakarra garraioarena izan zen; zehazki, %1,4.

2014. urtean elektrizitatearen eskaria %1 jaitsi zen, aurreko urtean izandakoarekin alderatuta. Elektrizitatearen eskari horren %39 bertako ekoizpenaren bidez ase edo bete zen, aurreko urtearen aldean ehuneko txikiagoa dena, baterako sorkuntza instalazioen funtzionamendu apalagoaren ondorioz. Gas naturalaren erabilerak %9,2 egin zuen behera. EAEn energia berriztagarrien ustiapena %3,1 igo zen, aurreko urtean izandakoarekin erkatuta, eta 433 ktpb izatera iritsi zen. Ustiapen berriztagarri horretatik, %67,8 biomasari dagokio, %15 bioerregaiei, %8,6 energia hidroelektrikoari, %6,9 energia eolikoari eta %1,8 eguzki-energiari.


Aipagai dugun urtean energia-intentsitatea hobetu egin da, maila apalean izan bazen ere, eta duela zortzi urte izan zen balioarekin konparatuta, 11 puntu hobetu zen, eta 3 puntu 2013an izandakoarekin erkatuz gero. Energia kontsumoaren jaitsierak, prezioen igoera txikiarekin batera, urte luzez igoera handiak izan ondoren, ekarri zuen azken energia faktura jaitea bigarren urtez, %4,5, eta 5.866 milioi eurokoa izan zen. Etxebizitzan biztanle bakoitzaren energia kontsumoaren batez besteko kostua 407 eurokoa izan zen, eta etxebizitzako 1.012 eurokoa, %6 txikiagoa, 2013an izandakoen aldean.

*El consumo energético en 2014 ha continuado la tónica de años anteriores con un descenso del 1,3% en la industria, 2,5% en el sector servicios, 5,6% en el residencial y 11,1% en el primario. El único sector que ha vuelto a mostrar crecimiento ha sido el del transporte con un 1,4%.*


*La demanda eléctrica, que ha sido un 1% inferior a la del año anterior, se cubrió con producción autóctona en un 39%, porcentaje que ha disminuido en el año debido al menor funcionamiento de las instalaciones de cogeneración. El uso de gas natural descendió un 9,2%. El aprovechamiento de energías renovables en la CAPV creció un 3,1% respecto al año anterior para alcanzar 433 ktep; el 67,8% de esta energía corresponde a biomasa, el 15% a biocarburantes, el 8,6% a la energía hidroeléctrica, el 6,9% a la eólica y el 1,8% al solar.*

*La intensidad energética ha mejorado ligeramente en el año, siendo su valor 11 puntos mejor que el de ocho años antes y 3 mejor que el de 2013. La reducción del consumo junto a la moderación de precios tras años de fuertes subidas ha provocado que la factura energética final se reduzca por segundo año un 4,5% alcanzando los 5.866 millones de euros. El coste de la energía consumida en las viviendas es de 407 € por ciudadano y 1.012 € por hogar, lo que suponen un descenso del 6% en el año.*

**Barne-kontsumo gordina eta azken energia-kontsumoa**  
*Consumo interior bruto y consumo final energético*



**Autohornikuntza-tasa**  
*Tasa de autoabastecimiento*





**Barne-kontsumo gordina eta azken energia kontsumoa**

*Consumo interior bruto y consumo final energético*

Euskadin energia primarioaren guztizko eskariak edo energiaren barne-kontsumo gordinak %2,5 egin zuen behera 2014. urtean, eta 6.207 ktpb izan zen. Azken energia kontsumoa ere jaitsi zen; zehazki, %1,3; garraioa izan zen gora egin zuen alor bakarra. Energia berriztagarriei lotutako energia primarioaren ekoizpenari dagokionez, gaur egun, energia eskariaren %6,7 da.

*La demanda total de energía primaria o consumo interior bruto en Euskadi ha disminuido un 2,5% en 2014, situándose en 6.207 ktep. El consumo final de energía, a su vez, ha descendido un 1,3%, siendo el único sector que ha crecido el del transporte. La producción de energía primaria, que corresponde a energías renovables en la actualidad, representa el 6,7% de la demanda energética.*



**Eskaria energiaka eta sektoreka**  
*Demanda por energías y sectores*


Gas naturala industrian (%45,7) eta sorkuntza elektrikoan (%39,9) erabiltzen da nagusiki. Petrolioaren deribatuak, berriz, garraiorako erabiltzen dira gehienbat (%86,3), eta energia elektrikoaren ehuneko handiena industriara bideratzen da (%58,3).

Sektoreka, industriaren kontsumoan gas naturala (%47) gailentzen da, eta hirugarren sektorearenean, aldiz, elektrizitatea (%52,7). Garraioaren kontsumoa, ordea, petrolioaren deribatueta oinarritzen da (%95,5).

*El mayor uso del gas natural se realiza en la industria (45,7%) y en generación eléctrica (39,9%), mientras que los derivados del petróleo se concentran en el transporte (86,3%) y la energía eléctrica en la industria (58,3%).*

*Por sectores, el mayor componente del consumo en la industria es el gas natural (47%) mientras que en el terciario es la electricidad (52,7%) y en transporte los derivados del petróleo (95,5%).*

**Energia intentsitatearen bilakaera**  
*Evolución de la intensidad energética*  
(2006 = 100)



**Energia intentsitatearen bilakaera**  
*Evolución de la intensidad energética*

EAEn, azken energia intentsitatea, 2006. urtean izandakoarekin alderatuta, %11 jaitsi zen 2014. urtean, BPG unitateko kontsumitutako energia terminotan adierazita. Aurreko urtean izandakoaren aldean, %1 hobetu zen, azken energia kontsumoaren jaitsieraren ondorioz, BPGarena baino puntu bat gehiago.

*La intensidad energética final en Euskadi en 2014 es un 11% inferior a la del año 2006 en términos de energía consumida por unidad de PIB. Respecto a 2013, la mejora es del 3% gracias a la reducción del consumo final de energía y al crecimiento del PIB.*



### Energiaren ekoizpena eta kontsumoa lurraldeka *Producción y consumo de energía por territorios*

Euskadi osoko barne kontsumo gordinaren %50,8 Bizkaian egin zen, Gipuzkoan %31,5 eta Araban %17,7. Azken energia-kontsumoari dagokionez, Bizkaiaren, Gipuzkoaren eta Arabaren partaidetza, hurrenez hurren, hauxe izan zen: %42,5, %37,2 eta %20,3.

*El consumo interior bruto de Bizkaia representa el 50,8% del total vasco, mientras que el de Gipuzkoa y Álava supone, respectivamente, un 31,5% y un 17,7%. En cuanto al consumo final, la participación de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava es, respectivamente, del 42,5%, 37,2% y 20,3%.*

#### Ekoizpen eta kontsumoen banaketa lurraldeka

*Distribución por territorios de producción y consumos*

ktpb / ktep			
2014	PEP	CIB	CFE
<b>Euskadi</b>	<b>415,2</b>	<b>6.206,8</b>	<b>4.983,2</b>
Araba/Álava	74,2	1.095,7	1.014,2
Bizkaia	219,7	3.153,6	2.116,2
Gipuzkoa	121,3	1.957,5	1.852,8

PEP: Producción de energía primaria / Energia primarioaren ekoizpena

CIB: Consumo interior bruto / Barne kontsumo gordin

CFE: Consumo final energético / Azken energia-kontsumoa

### Adierazleak per capita Lurralde Historiko bakoitzean *Indicadores per cápita por Territorios Históricos*

Araba eta Gipuzkoa izan ziren azken energia-kontsumo handiena izan zuten lurraldeak biztanleko, eta hirugarrena Bizkaia. Etxebizitza sektorea soil-soilik kontuan hartuta, Araba ere izan zen energia-kontsumo handiena izandako lurraldea biztanleko (0,33 tpb); Gipuzkoan 0,27 tpb izan zen eta Bizkaian 0,22 tpb.

*El mayor consumo final de energía por habitante se da en Álava y Gipuzkoa seguido de Bizkaia. Si consideramos tan sólo el sector residencial, el consumo por habitante es significativamente mayor en Álava (0,33 tep) que en Gipuzkoa (0,27 tep) y Bizkaia (0,22 tep).*

#### Adierazleak percapita lurraldeka

*Indicadores per cápita por territorios*

tpb/biz tep/hab				
2014	PEP	CIB	CFE	CR
<b>Euskadi</b>	<b>0,19</b>	<b>2,86</b>	<b>2,29</b>	<b>0,25</b>
Araba/Álava	0,23	3,42	3,17	0,33
Bizkaia	0,19	2,76	1,85	0,22
Gipuzkoa	0,17	2,76	2,61	0,27


PEP: Producción de energía primaria / Energia primarioaren ekoizpena

CIB: Consumo interior bruto / Barne kontsumo gordin


CFE: Consumo final energético / Azken energia-kontsumoa

CR: Consumo residencial / Etxebizitza sektorean kontsumoa

**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*



**Azken kontsumoa sektoreka eta energiaka**  
*Consumo final por sectores y energías*



**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*

Arabaren barne kontsumo gordina 1.096 ktpb izan zen, aurreko urtean izandakoarekin konparatuta, %1,7 egin zuen behera, eta EAEko barne kontsumo gordin osoaren %17,7 izan zen.

*El consumo interior bruto en Álava representa el 17,7% del total vasco y es de 1.096 ktep, descendiendo un 1,7% respecto al año anterior.*


**Azken kontsumoa sektoreka eta energiaka**  
*Consumo final por sectores y energías*

2014. urtean azken energia-kontsumoa 1.014 ktpb izan zen Araban. Sektore kontsumitzaileena garraioa izan zen, guztizkoaren %46,2; horren ostean, industria (%32,9), etxebizitza-sektorea (%10,5); zerbitzu sektorea (%7,9) eta lehen sektorea (%2,5) datoz.


*El consumo final de energía en Álava alcanzó en 2014 los 1.014 ktep. El sector más consumidor es el del transporte (46,2% del total), seguido del industrial (32,9%) y los sectores residencial, servicios y primario (10,5%, 7,9% y 2,5% respectivamente).*

Mas datos en [Tabla 3.](#) taulan datu gehiago.

**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*



**Azken kontsumoa sektoreka eta energiaka**  
*Consumo final por sectores y energías*



**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*

Barne kontsumo gordina Bizkaian, EAEko guztizkoaren %50,8 izan zen (3.154 ktpb), eta aurreko urtean izandakoaren aldean, %2,9 jaitsi zen.

*El consumo interior bruto en Bizkaia representa el 50,8% del total vasco y se ha reducido un 2,9% en el año hasta los 3.154 ktep.*


**Azken kontsumoa sektoreka eta energiaka**  
*Consumo final por sectores y energías*

Azken energia-kontsumoak %0,8 egin zuen behera Bizkaian 2014an, eta 2.116 ktpb izan zen. Azken energia-kontsumoaren %44,1 industria sektoreari zegokion Bizkaian. Garraio sektoreari, aldiz, %32,8 zihokion.


*El consumo final de energía en Bizkaia disminuyó un 0,8% en 2014, alcanzando los 2.116 ktep. El sector industrial representa el 44,1% del consumo final en Bizkaia y el transporte alcanza el 32,8%.*

Mas datos en [Tabla 4.](#) taulan datu gehiago.

**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*



**Azken kontsumoa sektoreka eta energiaka**  
*Consumo final por sectores y energías*



**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*

2014an barne kontsumo gordina 1.957 ktpb izan zen Gipuzkoan; guztizkoaren %31,5 izan zena, eta aurreko urtean baino %2,3 txikiagoa.

*El consumo interior bruto en Gipuzkoa es de 1.957 ktep, lo que representa el 31,5% del total y un descenso del 2,3% en el año.*

**Azken kontsumoa sektoreka eta energiaka**  
*Consumo final por sectores y energías*

Azken energia-kontsumoak %1,9 egin zuen behera, aurreko urtean izandakoarekin alderatuta, eta 1.853 ktpb izan zen. Kontsumoaren %43,6 industria sektoreari zegokion Gipuzkoan, eta %37,8 garraio sektorean gertatu zen.

*El consumo final fue de 1.853 ktep, con una disminución del 1,9% respecto al año anterior. El sector industrial representa el 43,6% del consumo final de energía en Gipuzkoa, mientras que el transporte alcanza el 37,8%.*



Mas datos en [Tabla 5](#) taulan datu gehiago.

**Barne kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*


EAEko energia eskari osoaren %78 baino gehiago gas naturalari eta petroliotik eratorriei zegokien 2014an. Inportazio elektrikoak eskariaren %13,7 izan ziren; ikatzarena %0,7 izan zen eta energia berriztagarrien partaidetzak lehengoari eutsi zion, %7.

*El gas natural y los derivados del petróleo representan más del 78% de la demanda energética total de la CAPV. Las importaciones eléctricas suponen el 13,7% de la demanda, el carbón se reduce al 0,7% y la participación de las renovables se mantiene en 7%.*

**Barne-kontsumo gordina energiaka**  
*Consumo interior bruto por energías*




Azken kontsumoa energiakia  
Consumo final por energías




**Azken kontsumoaren egitura energiakia**  
*Estructura del consumo final por energías*

2014an ikatzak pisua galtzen jarraitu zuen, eta %4,9 jaitsi zen; gas naturalaren eta energia elektrikoaren kontsumoak ere behera egin zuen, %6,6 eta %1, hurrenez hurren. Petroliotik eratorrien eta energia berriztagarrien kontsumoak, berriz, gora egin zuen, %0,8 eta %11, hurrenez hurren.


*Durante 2014 el carbón continuó perdiendo peso descendiendo el 4,9%. También se redujo el consumo de gas natural (-6,6%) y la energía eléctrica (-1%) mientras que ascendía el consumo de derivados del petróleo (+0,8%) y las energías renovables (+11%).*



**Ikatzaren eta deribatuen barne-kontsumo gordina eta azken kontsumoa**  
*Consumo interior bruto y consumo final de carbón y derivados*



**Ikatzaren eskaria sektoreka eta lurraldeka**  
*Demanda de carbón por sectores y territorios*




**Ikatzaren barne kontsumo gordina eta azken kontsumoa**  
*Consumo interior bruto y consumo final de carbón*


2014an, ikatzaren eta beronen deribatuen kontsumoa industrial baina ez zen izan, kontsumorik gabe energia sektorean. Kontsumoa %4,9 jaitsi zen urtean.

*En el año 2014 el consumo de carbón y derivados es únicamente industrial, sin consumo ya en el sector energético. El consumo final se contrajo el 4,9% en el año.*

Petroliotik eratorrien barne-kontsumo gordina eta azken kontsumoa



Petroliotik eratorrien ekoizpena motaren arabera  
Producción de derivados del petróleo por tipos



**Petroliotik eratorrien ekoizpena eta azken kontsumoa**

*Producción y consumo total de derivados del petróleo*

Fintze sektorean deribatu arinen ekoizpena guztizkoaren %89,6 izatera iritsi zen 2014. urtean. Euskadin, azken kontsumoan, gehien kontsumitutakoak produktu arinak izan ziren (%99,1).


Petroliotik eratorrien azken kontsumoa %0,8 igo zen 2014an. Barne kontsumoak, aldiz, %0,4 egin zuen behera.

*La producción de derivados ligeros en el sector del refino en 2014 asciende hasta el 89,6% del total. El principal producto de consumo final en Euskadi son los productos ligeros (99,1%).*


*El consumo final de derivados del petróleo en 2014 creció el 0,8%. El consumo interior disminuyó el 0,4%.*



**Petroliotik eratorrien kontsumoa produktuka**  
*Consumo de derivados del petróleo por productos*



**Petroliotik eratorrien eskaria sektoreka eta lurraldeka**  
*Demanda de derivados del petróleo por sectores y territorios*




**Petroliotik eratorrien kontsumoa**  
*Consumo de derivados del petróleo*


Automozio-gasolioaren kontsumoa 2014an, EAEn kontsumitu zen petroliotik eratorri guztien %74 izan zen. Horren ondoren, gasolinarena (%8,7) eta B eta C gasolioena (%6,6) etorri ziren. 2014an aldaketa handiena fuel-olioaren jaitsiera izan zen (%22). Petroliotik eratorrien eskaria garraio sektoreari zegokion gehienbat (guztizkoaren %86,3); industriarena, berriz, %7 izan zen.

*El gasóleo de automoción representa el 74% del total de derivados del petróleo en el consumo final en la CAPV. Le siguen las gasolinas (8,7%) y gasóleos B y C (6,6%). La mayor variación se ha producido con la reducción del 22% del consumo de fuelóleo en 2014. La demanda de derivados del petróleo está concentrada sobre todo en el sector transporte (un 86,3% del total) seguido de la industria (7%).*

Gas naturalaren kontsumoa  
Consumo de gas natural



Gas naturalaren eskaria sektoreka eta lurraldeka  
Demanda de gas natural por sectores y territorios





**Gas naturalaren eskaria eta kontsumoa sektoreka eta lurraldeka**

*Demanda de gas natural y consumo por sectores y territorios*

EAEn, 2014. urtean, gas naturalaren 28.444 GWh kontsumitu ziren; aurreko urteko kontsumoarekin alderatuta, %9,2 gutxiago izan zena. Elektrizitatearen sorkuntzak kontsumoaren %4,7 galdu zuen eta hirugarren sektoreak %2,8; industriak eta baterako sorkuntzak, berriz, %1 galdu zuten. Gas naturala euskal energia eskari guztiaren %38 izan zen. Lurraldeka, gas naturalaren eskariaren %59,2 Bizkaiari zegokion.

*En 2014 se consumieron en Euskadi 28.444 GWh de gas natural, lo que supone una reducción del 9,2% respecto al año anterior. La generación eléctrica perdió un 4,7% del consumo y el sector terciario el 2,8% mientras industria y cogeneración perdían un 1%. El gas natural representa el 38% de la demanda energética total vasca. Por territorios, Bizkaia absorbe el 59,2% de la demanda de gas natural.*

Energia berriztagarrien ustiapena  
Aprovechamiento de energías renovables



Energia berriztagarrien ustiapena  
Aprovechamiento de energías renovables



Energia berriztagarrien ustiapena 433 ktpb izan zen 2014an. Kopuru horretatik. %67,8 biomasari zegokion, bioerregaiak %15, hidroelektrikoari %8,6 eta eolikoari %6,9.

Azken energia kontsumoan berriztagarrien kuota %7 da (%13,7 dena, inportatutako elektrizitatearen jatorri berriztagarria kontuan hartuta).

*El aprovechamiento de energía renovable en el año 2014 fue de 433 ktep, cantidad de la que la biomasa constituye un 67,8%, los biocarburantes el 15%, la hidroeléctrica un 8,6% y la eólica 6,9%.*

*La cuota de renovables en el consumo final de energía es del 7% (13,7% contando el origen renovable de la electricidad importada).*

Energia berriztagarrien bidezko ekoizpen elektrikoa  
*Producción eléctrica renovable*




**Energia berriztagarrien bidezko ekoizpen elektrikoa**  
*Producción eléctrica renovable*

Sorkuntza elektrikoa berriztagarria %15,4 jaitsi zen 2014an, eta 1.068 GWh izan zen. Elektrizitatearen guztizko eskarian %6,5eko partaidetza izan zuen. Jaitsiera esanguratsuena ekoizpen hidroelektrikoan gertatu zen, %27,4, 2013. urtea eurtsua izan ondoren.

*La generación eléctrica renovable en 2014 disminuyó un 15,4% y fue de 1.068 GWh, y su participación en la demanda eléctrica total es del 6,5%. La reducción más significativa ha sido el 27,4% de la producción hidroeléctrica tras un húmedo 2013.*

**Energia berriztagarrietan instalatutako ahalmena**  
*Capacidad instalada de energías renovables*




**Energia berriztagarrietan instalatutako ahalmena**

*Capacidad instalada en energías renovables*

Sorkuntza hidroelektrikoaren eta eolikoaren ahalmenak maila berean jarraitu zuen, 173 MW eta 153 MW, hurrenez hurren. Eguzki-energia fotovoltaikoarena, aldiz, %1,7 igo zen 2014an, eta eguzki-termikoaren eremuarena %6,6.

*La capacidad de generación hidroeléctrica y eólica se mantiene respectivamente en 173 MW y 153 MW. La capacidad solar fotovoltaica aumentó un 1,7% en 2014 y la superficie solar térmica en un 6,6%.*

**Energia berriztagarrien eskaria sektoreka eta lurraldeka**  
*Demanda de energías renovables por sectores y territorios*





**Energia berriztagarrien eskaria sektoreka eta lurraldeka**

*Demanda de energías renovables por sectores y territorios*

Energia berriztagarrien eskari zuzen handiena industrian gertatu zen, eta batez ere papergintzan. Energia berriztagarrien %50 Bizkaian kontsumitu zen.

*La mayor demanda directa de energía renovable corresponde a la industria, principalmente en el sector papelero. Bizkaia consume el 50% de las energías renovables.*

Energia elektrikoaren hornidura  
Abastecimiento de energía eléctrica




Energia elektrikoaren hornidura  
Abastecimiento de energía eléctrica

EAEn, energia elektrikoaren eskaria 16.335 GWh izan zen 2014. urtean, aurreko urtekoarekin erkatuta, %0,9 egin zuen behera. Azken energia-kontsumoaren %25,7 energia elektrikoari zegokion. EAEn, elektrizitatearen ekoizpena %12,1 jaitsi zen 2014an, zentral termikoen eta baterako sorkuntzaren ekoizpen txikiagoagatik, eta eskariaren %39 haren bitartez ase zen. Gainerako %61a elektrizitatearen inportazioen bidez bete zen.

*La demanda de energía eléctrica en Euskadi en 2014 fue de 16.335 GWh, con un descenso del 0,9% respecto al año anterior. La energía eléctrica representa el 25,7% del consumo final de energía. La producción eléctrica en Euskadi disminuyó un 12,1% en el año y cubrió el 39% de la demanda debido a la menor operación de las centrales térmicas y la cogeneración. El 61% restante corresponde a las importaciones de electricidad.*

Potentzia instalatua baterako sorkuntzan  
*Potencia instalada en cogeneración*



Potentzia instalatua baterako sorkuntzan  
*Potencia instalada en cogeneración*

Baterako sorkuntzan potentzia instalatua 7 MW jaitsi zen 2014an.

*La potencia instalada en cogeneración ha disminuido 7 MW durante el 2014.*


Azken energia elektrikoaren kontsumoa sektoreka eta lurraldeka

*Consumo final de energía eléctrica por sectores y territorios*

Energia elektrikoaren azken kontsumoaren %58,3 industriak egin zuen eta hirugarren sektoreak, berriz, %40,3. Arabak %0,5 gehitu zuen bere kontsumoa; Bizkaiak eta Gipuzkoak, ordea, %0,8 eta %1,9 murriztu zuten, hurrenez hurren.

*La industria representa el 58,3% del consumo final de energía eléctrica y el sector terciario el 40,3%. Álava aumenta el 0,5% su consumo mientras lo reducen Bizkaia el 0,8% y Gipuzkoa el 1,9%.*

Azken energia elektrikoaren kontsumoa sektoreka eta lurraldeka  
*Consumo de energía eléctrica final por sectores y territorios*





### Azken kontsumoaren egitura sektoreka *Estructura del consumo final por sectores*

Euskal Autonomia Erkidegoan, azken energia-kontsumoan parte-hartze handienak industriari (guztizkoaren %41,6) eta garraioari (%37,4) zegozkien. Garraioan izan ezik, %0,8 igo zen, gainerako sektore guztietan jaitsi zen kontsumoa 2014an: industrian %1,3, etxebizitza sektorean %5,6, lehen sektorean %11,1 eta zerbitzu sektorean %2,5.

*Los sectores de mayor consumo final de energía en Euskadi son la industria (41,6% del total) y el transporte (37,4%). Excepto el transporte, que sube un 0,8%, el resto de sectores pierden consumo: la industria el 1,3%, el residencial el 5,6%, el sector primario el 11,1% y el sector servicios el 2,5%.*




Mas datos en [Tabla 6.](#) taulan datu gehiago.

Azken kontsumoa sektoreka  
*Consumo final por sectores*





Kontsumoa industrian energiaka  
Consumo en la industria por energías




**Kontsumoa industrian energiaka**  
*Consumo en la industria por energías*


EAEko industria sektorearen azken energia-kontsumoa 2.074 ktpb izan zen 2014an, aurreko urtean izandakoaren aldean, %1,3 egin zuten behera. Industrian gehien kontsumitu ziren energiak gas naturala eta elektrizitatea izan ziren, eta haien kontsumoa %7,8 eta %0,1 jaitsi zen, hurrenez hurren. Ikatzak eta bere deribatuek %4,9 egin zuten behera. Petroliotik eratorriak (%19,2) eta berriztagarriek (%20), ordea, gora egin zuten.

*El consumo final energético del sector industrial vasco alcanzó en 2014 un valor de 2.074 ktep, descendiendo un 1,3% respecto al año anterior. Las energías más consumidas en la industria son el gas natural y la eléctrica, que disminuyen el 7,8% y el 0,1% respectivamente. El carbón y sus derivados descienden el 4,9% y los aumentos son de los derivados del petróleo el 19,2% y las renovables el 20%.*

*Mas datos en [Tabla 7. taulan datu gehiago.](#)*



**Industriaren energia-intentsitatearen bilakaera**  
Evolución de la intensidad energética industrial  
(2006 = 100)



**Kontsumoa industrian lurraldeka**

*Consumo en la industria por territorios*

Industria-kontsumo handiena Bizkaian izan zen, guztizkoaren %45. Horren ondoren, Gipuzkoan, %38,9, eta Araban, %16,1.

*El mayor consumo industrial corresponde a Bizkaia, con el 45% del total, seguido por Gipuzkoa con el 38,9% y Álava el 16,1%.*

Mas datos en [Tabla 8.](#) taulan datu gehiago.


**Industriaren energia-intentsitatearen bilakaera**

*Evolución de la intensidad energética industrial*

Industrian energia-intentsitateak puntu bat egin zuen hobera 2014. urtean. Izan ere, energia kontsumoa puntu bat jaitsi zen eta industriaren BPGak bere horretan jarraitu zuen.

*La intensidad energética industrial ha mejorado 1 punto en 2014, ya que ha descendido el consumo de energía un punto mientras se mantenía el PIB industrial.*

Energia-kontsumoa garraioan  
Consumo de energía en el transporte



Energia kontsumoa garraioan  
Consumo de energía en el transporte


Garraio sektorean energia kontsumoa 1.861 ktpb izan zen 2014an, eta %0,8 igo zen, azken energia kontsumoaren %37,4 izanik. Garraioan erabili zen energiaren %95,7 petroliotik eratorriak izan ziren. Hegazkingintzaren kontsumoa %0,9 jaitsi zen eta nabigazioarena %26,5.


*El consumo de energía en el transporte, que representa el 37,4% del consumo final, creció en 2014 un 0,8% alcanzando un valor de 1.861 ktep.*

*El 95,7% de la energía consumida en el transporte son derivados del petróleo. En el sector de la aviación descendió el 0,9% y en la navegación el 26,5%.*


Más datos en [Tabla 9](#). taulan datu gehiago.

Kontsumoa garraioan azpisektoreka  
Consumo en el transporte por subsectores





**Energi-intentsitatea garraioan**  
*Intensidad energética en el transporte*



**Kontsumoa garraioan lurraldeka**

*Consumo en el transporte por territorios*

EAEn, garraioan kontsumitu zen energiaren %37,6 Gipuzkoan gertatu zen; %37,2 Bizkaian eta %25,2 Araban. Gasolioen kontsumoa Araban, guztizkoaren %88 izan zen, Gipuzkoan %86 eta Bizkaian %74.

*El 37,6% del consumo en el transporte en Euskadi corresponde a Gipuzkoa, el 37,2% a Bizkaia y el 25,2% a Álava. Los gasóleos representan en Álava el 88% del total, Gipuzkoa el 86%, y en Bizkaia, el 74%.*

Mas datos en [Tabla 10](#). taulan datu gehiago.



**Energia-intentsitatea garraioan**

*Intensidad energética en el transporte*

Garraioan energia-intentsitateak, EAEn, energia-kontsumoa tpb-tan neurtuta BPG osoaren unitateko, 0,4 puntu egin zuen hobera 2014. urtean.

*La intensidad energética en el transporte, medida en términos de consumo de energía en tep por unidad de PIB total, ha mejorado en 0,4 puntos en el año 2014.*

Kontsumoaren egitura lehen sektorean azpisektoreka  
Estructura del consumo en el sector primario por subsectores



**Kontsumoa lehen sektorean**  
*Consumo en el sector primario*

Lehen sektorearen kontsumoa 69,4 ktpb izan zen 2014an, aurreko urtekoarekin alderatuta, %11,1 txikiagoa. EAEko azken energia-kontsumoaren %1,4 izan zen.


Lurraldeka, lehen sektorearen kontsumoaren %36,2 Araban gertatu zen, %35,3 Bizkaian eta %28,4 Gipuzkoan.

*El consumo del sector primario es de 69,4 ktep, descendiendo un 11,1% en el año y representa el 1,4% del consumo final de energía en Euskadi.*

*Por territorios, el 36,2% del consumo en el sector primario corresponde a Álava, un 35,3% a Bizkaia y un 28,4% a Gipuzkoa.*

Mas datos en [Tabla 11.](#) taulan datu gehiago.

Kontsumoa zerbitzu-sektorean energiaka  
Consumo en el sector servicios por energías





**Kontsumoa zerbitzu sektorean energiaka**  
*Consumo en el sector servicios por energías*

Kontsumoa zerbitzu sektorean %2,5 jaitsi zen 2014. urtean, aurreko urtean izandakoaren aldean, eta 428 ktpb izan zen. Kontsumo hori EAEko azken kontsumoaren %8,6 izan zen.

*El consumo en el sector servicios fue de 428 ktep en 2014, reduciéndose un 2,5% respecto al año anterior. Este consumo supone el 8,6% del consumo final en Euskadi.*

Mas datos en [Tabla 12.](#) taulan datu gehiago.





Energi intentsitatea zerbitzu sektorean  
*Intensidad energética en el sector servicios*



**Kontsumoa zerbitzu sektorean lurraldeka**  
*Consumo en el sector servicios por territorios*

Zerbitzu sektoreak kontsumitu zuen energiaren %49,1 Bizkaian gertatu zen, %32 Gipuzkoan eta %18,8 Araban. Elektrizitatearen kontsumoa nagusi izan zen hiru lurraldeetan.

*El 49,1% del consumo del sector servicios vasco corresponde a Bizkaia, el 32% a Gipuzkoa y el 18,8% a Álava. En los tres territorios predomina el consumo eléctrico.*

Mas datos en [Tabla 13.](#) taulan datu gehiago.



**Zerbitzu sektorearen energia intentsitatea**

*Intensidad energética del sector servicios*

Zerbitzu sektorearen energia intentsitatea (sektorearen BPG unitateko energia kontsumoan neurtuta) 3,8 puntu hobetu zen 2014an.

*La intensidad energética en el sector servicios (medida en consumo energético por unidad de PIB del sector) ha mejorado 3,8 puntos en 2014.*

Kontsumoa etxebizitza sektorean energiakia  
Consumo en el sector residencial por energías




**Kontsumoa etxebizitza sektorean energiakia**  
*Consumo en el sector residencial por energías*

Etxebizitza sektorean energia-kontsumoa 550 ktpb izan zen 2014. urtean, aurreko urtekoarekin erkatuta, %5,6 jaitsi zen, eta azken kontsumoaren %11 izan zen. Gas naturalaren eta elektrizitatearen kontsumoak %3,6 egin zuen behera.

*El consumo de energía en el sector residencial en el año 2014 fue de 550 ktep, lo que supone un descenso en el último año del 5,6%, representando el 11% del consumo final. Tanto el gas natural como la electricidad disminuyen el 3,6%.*

Mas datos en [Tabla 14.](#) taulan datu gehiago.





**Kontsumoa etxebizitza sektorean lurraldeka**


*Consumo en el sector residencial por territorios*

Etxebizitza sektorearen kontsumoaren %46,4 Bizkaian egin zen, %34,2 Gipuzkoan eta %19,4 Araban.

*Bizkaia supone el 46,4% del consumo residencial de Euskadi, Gipuzkoa el 34,2% y Álava el 19,4%.*

Mas datos en [Tabla 15](#). taulan datu gehiago.

**Biztanleko eta etxeko kontsumoa etxebizitza-sektorean**  
*Consumo por habitante y por hogar en el sector residencial*



**Biztanleko eta etxeko kontsumoa etxebizitza sektorean**

*Consumo por habitante y por hogar en el sector residencial*

EAEn, 2014an biztanleko energia-kontsumoa %2,9 jaitsi zen eta etxearena %5,9, aurreko urtekoaren aldean.

*El consumo anual por habitante en Euskadi ha disminuido el 2,9% y el consumo por hogar el 5,9% en 2014.*


**Energia-fakturaren bilakaera**

*Evolución de la factura energética*


Azken kontsumitzailearentzako energiaren kostua %4,5 gutxitu zen 2014an, aurreko urtean izandakoarekin alderatuta, eta 5.866 milioi euro izan zen. Kostu horretatik, %47,6 garraio sektoreari dagokio, %24,3 industriari, %15,1 etxebizitza sektoreari, %11,6 zerbitzu sektoreari eta %1,4 lehen sektoreari.

*El coste de la energía para el consumidor final disminuyó un 4,5% en 2014 y supuso 5.866 millones de euros. De este coste, el 47,6% corresponde al sector del transporte, el 24,3% a la industria, el 15,1% al sector residencial, el 11,6% al de servicios y el 1,4% al primario.*


**Energia-fakturaren bilakaera**  
*Evolución de la factura energética*



**Energia faktura sektoreka eta energiaka**  
*Factura energética por sectores y energías*



**Energia-faktura lurraldeka eta energiaka**  
*Factura energética por territorios y energías*



**Energia-faktura**  
*Factura energética*

Garraio sektorearen fakturaren %95 petroliotik eratorriei zegokien. Industrian, berriz, elektrizitatea kostu osoaren %60,2 izan zen eta gas naturala %37,3.

*Los derivados del petróleo suponen el 95% de la factura del transporte. En la industria, la electricidad supone el 60,2% de la factura y el gas natural el 37,3%.*


Mas datos en [Tabla 16.](#) taulan datu gehiago.

Lurralde guztietan petroliotik eratorrien faktura izan zen handiena. Hala, lurraldeka, banaketa hauxe izan zen: Araban %57,3, Gipuzkoan %48,9 eta Bizkaian %43.


*La factura de derivados de petróleo es la más alta en todos los territorios, representando el 57,3% en Álava, el 48,9% en Gipuzkoa y el 43% en Bizkaia.*

Mas datos en [Tabla 17.](#) taulan datu gehiago.

**Etxebizitza sektorearen energia-faktura**  
*Factura energética del sector residencial*



**Etxebizitza sektorearen energia-faktura**  
*Factura energética del sector residencial*



**Energia-faktura etxebizitza sektorean**  
*Factura energética en el sector doméstico*

Etxebizitza sektorearen energia faktura apaldu egin da azken bi urte hauetan, sei urtez nabarmen igo ondoren. 2014an %5,8 egin zuen behera. Biztanleko fakturaren jaitsiera %5,8 izan zen, eta %6,1 etxeko fakturari zegokionez, 1.012 euro etxeko eta 408 euro biztanleko izanik.

*La factura del sector residencial se ha moderado en los últimos dos años tras seis años de fuerte crecimiento. En 2014 ha disminuido el 5,8%. El descenso en la factura por hogar ha sido del 6,1% y en la factura por habitante del 5,8%, alcanzando 1.012 euros por hogar y 408 euros por habitante.*


**Energia primarioaren ekoizpena eta barne kontsumo gordina per capita**

*Producción primaria y consumo interior bruto de energía per cápita*

28ko EBn barne-kontsumo gordina per capita 3,27 tpb izan zen (2013. urteari dagozkion datuak). EAEn, berriz, 2,93 tpb, Europa hegoaldeko herrialdeena baino handiagoa eta iparraldekoena baino txikiagoa.

Kontsumoa per capita handiena izan zuten herrialdeak Luxenburgo, Finlandia, Suedia eta Belgika izan ziren. Balio absolututan, EAEn energia-eskaria Espainiako Estatukoaren %5,4 eta 28ko EBn %0,4 izan zen.

*El consumo interior bruto per cápita en la UE28 (datos de 2013) es de 3,27 tep. En el País Vasco es de 2,93 tep, superior al de los países del Sur de Europa e inferior al de los del Norte. Los países de mayor consumo per cápita son Luxemburgo, Finlandia, Suecia y Bélgica. En valores absolutos, la demanda de Euskadi representa un 5,4% de la del Estado Español y el 0,4% de la UE28.*




**Kanpoko energia mendetasuna Europan**  
*Dependencia energética exterior en Europa*

Euskadik duen kanpoko energia mendetasuna (%93,5) EBko estatu kideek dutena baino askoz handiagoa da, Luxenburgo izan ezik.


Mendetasun txikiena duten estatuak petrolioa eta gas naturalaren ekoizleak dira (Erresuma Batua eta Danimarka). Horien ondoren, berriztagarriak ekoizten dituztenak (Europako iparraldekoak) eta energia nuklear ekoizleak (Frantzia eta Suedia) dira.

